







## Energia kontsumoa EAEn



### Energiaren kontsumoa EAEn

#### Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %2,2 egin zuen gora otsailean, 2017. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %2,5 jaitsi zen, etxekoan, berriz, %10,2 igo zen eta hirugarren sektorean edo zerbitzuetan %1,3. 2018ko otsailera arte metatutako kontsumoak %0,8 egin zuen gora, 2017. urteko epe berean izandakoarekin alderatuta; etxeko sektorean %0,4 igo zen, zerbitzu arloan ez da aldaketarik izan eta industrian, ordea, %0,8 egin zuen behera.

Urteko lehen bi hilabete horietan, industrian gora egin duten sektoreak, besteak beste, hauexek izan dira: zementua (+%17), kautzuzko eratorriak (+%12,2), beiragintza (+%10,3) eta kimikoa (+%5,6); behera egin dutenak, aldiz, siderurgia eta galdagintza (-%4,9) eta papera eta kartoia (-%4,8) dira.

#### Gas naturala







Otsailean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %23,2 egin zuen gora, 2017ko otsailean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %26 jaitsi zen eta gainerako sektoreena, berriz, %28,6 igo zen. 2018ko otsailera arte metatutako kontsumoak %0,6 egin zuen gora, aurreko epealdiaren aldean, (-%42,6 CCTT-n eta +%6,1 gainerako sektoretan).

#### Erregaiak garraioan

Urtarrilean, garraioan erregaien kontsumoak %9,8 egin zuen gora, 2017. urteko hil berean izandakoarekin alderatuta. Azken 12 hilabetean metatutako kontsumoa %6,6 igo zen, 2017koarekin erkatuta. Hala, gasolinen kontsumoak %4,8 egin zuen gora eta A gasolioarenak %6,8.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

## Kanpoko Egoera








### EAEtik kanpoko egoera

**Petrolioaren kontsumoa munduan**  
 Otsailean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 100,9 milioi kupel izan zen (2017ko otsailean izandakoaren aldean, %1,7 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasanean %2,9 egin zuen gora kontsumoak, 14,4 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %3,7 igo zen, eta 14,2 Mbpd kontsumitza heldu zen eta AEBetan %4,1 igo zen, eta 20 Mbpd kopuruan kokatu zen. Txinako kontsumoak gainditu egin zuen lehen aldiz Europako kontsumoak urtarrilean (13,87 Mbpd eta 13,48 Mbpd, hurrenez hurren).

**Energiaren kontsumoa Espainian**  
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %17,1 egin zuen gora otsailean, 2017ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. 2018. urteko lehen bi hilabeteetan metatutako kontsumoak %3,1 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen otsailean, %6,8, 2017ko otsailean izandakoaren aldean. 2018. urtean metatutako kontsumoak %2,1 igo zen, 2017an izandakoarekin alderatuta. Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %6 egin zuen gora urtarrilean, 2017ko hil berean izandakoarekin konparatuta; gasolinaren kontsumoa %5,4 igo zen eta gasolioena %6,1. Azken 12 hilabeteetan metatutako kontsumoak %2,6 egin zuen gora, aurreko epealdi beraren aldean, (%2,5 igo zen gasolinena eta %2,6 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %1,3 egin zuen gora urtarrilean, eta azken 12 hilabeteetan izandako kontsumo metatua %7,9 igo zen, aurreko epealdi berarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAren datuetan oinarrituta.

## Energiaren prezioa



### Energiaren prezioa

#### Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 65,4\$ (53 €) izan zen otsailean. Urtebetean prezioak %17,9 egin zuten gora (%1,6 eurotan).

#### Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 54,9 €/MWh izan zen otsailean; duela urtebete zegoenaren aldean, %6,1 egin zuten gora.

#### Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 18,3 €/MWh izan zen urtarrilean, eta %3,2 igo zen, 2017ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Otsailean, EGIX-en batez besteko prezioa 18,6 €/MWh izan zen (2017ko otsailean izandakoarekin alderatuta, %4,8 jaitsi zen). Spot merkatuetan, otsailean, Henry Hub-en prezioa 9,1 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 30,1 €/MWh, (2017ko hil horretan izandakoaren aldean, -%6,3 eta +%6,8 egin zuten behera eta gora, hurrenez hurren).

#### Erregaiaren prezioa

EAEn, otsailean, gasolioaren prezioa 1,13 €/l izan zen (urtebetean %1,4 igo da), eta gasolinarena 1,22 €/l (urtebetean %0,7 egin du behera).

#### CO<sub>2</sub>-aren prezioa

CO<sub>2</sub>-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 9,6 €/t izan zen otsailean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %87 igo da.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, Powernext, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.